

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoko Administrazio Kontseiluaren lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez Gizartegintza Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (kodea: 81.003) izendapen askez betetzeko deialdia bete gabe geratuko den

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakariaren ebazpen bidez (ALHAOn argitaratu zen: 2020ko abuztuaren 10ean, 89.zk.) deialdia egin zen izendapen askearen bidez betetzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gizartegintza Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (lanpostuaren kodea 81.003.).

Ebazpen horretan, eskabideak jasotzeko epe bat ezarri zen, hamar egun baliodunekoa, iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Aurreko paragrafoan adierazitakoa, 2020ko abuztuaren 17an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian publikatu zen (160. zenbakian).

Deialdiaren bostgarren oinarrian ezarritakoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzaren txostena jaso da eta egiaztatu da izangaiak ez duela ego-kitasunik. Ondorioz, bidezkoa da deialdi hau hutsik uztea.

Bat etorri Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoarekin, zeinak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua onartzen duen,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gizartegintza Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (kodea: 81.003) izendapen askez betetzeko deialdia bete gabe uztea.

Bigarrena. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoari; hori guztia bat etorri Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua eta APELeko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin loturik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 8a

GOFeren Administrazio Kontseiluko lehendakaria
EMILIO SOLA BALLOJERA